

# Errenteria

HERRI BIZIA 

## **PLAZA BERRIEN FAKTORIA** *Lekuona Fabrika* **FACTORÍA DE NUEVAS PLAZAS**



*Lekuona  
Fabrika,  
xehetasunak*

3. ORR. >>

*Argazkiak*

6. ORR. >>

*Herri Bizia*

8. ORR. >>

*Lekuona  
Fabrika,  
testigantzak*

12. ORR. >>

*Errenteria  
Bizia*

15. ORR. >>

# LEKUNA

[FABRIKA]

## ZERBITZUAK:

- KULTURA SAILEKO BULEGOAK
- UDAL BIBLIOTEKA
- EGONALDI ARTISTIKOAK ETA MEDIAZIO PROGRAMAK
- HERRITAR PLAZA
- SARRERA SALMENTA
- KANTINA

## SERVICIOS:

- OFICINAS DEL DEPARTAMENTO DE CULTURA
- BIBLIOTECA MUNICIPAL
- RESEDENCIAS ARTÍSTICAS Y PROGRAMAS DE MEDIACIÓN
- HERRITAR PLAZA
- VENTA DE ENTRADAS
- KANTINA

## ORDUTEGIA:

- UZTAILAREN 16A ARTE:  
ASTELEHENA-OSTIRALA, 9:00-20:00
- UZTAILAREN 19TIK ABUZTUAREN 31A ARTE:  
ASTELEHENA-OSTIRALA, 9:00-14:30

## HORARIO:

- HASTA EL 16 DE JULIO:  
LUNES-VIERNES, 9:00-20:00
- DEL 19 DE JULIO AL 31 DE AGOSTO:  
LUNES-VIERNES, 9:00-14:30

## TELEFONOA / TELÉFONO:

- 943 44 96 35



## Lekuona: la nueva hornada cultural

*Tras un proceso de varios años, Lekuona Fabrika abrió sus puertas el pasado 27 de mayo. El edificio cobijará espacios para la creación, una biblioteca, una sala para estudiar en silencio, zonas para actividades socio-culturales... y un espacio escénico sin comparación en la zona.*

**L**a hornada ha tardado en salir, con varios sustos que retrasaron su puesta a punto, pero ha merecido la pena y Lekuona Fabrika ha venido a reforzar el carácter creativo e innovador del municipio.

El Ayuntamiento y la ciudadanía de Errenteria hace tiempo que fijaron la dirección de la villa: de un pasado socioeconómico fundamentado en las fábricas que poblaban la Pequeña Manchester a un futuro postindustrial. Bajo el humo de las

chimeneas ya se tejía una amplia red asociativa y cultural, y es precisamente la cultura la que va a guiar la Errenteria del futuro. Y Lekuona será —¿o debemos decir es?— su buque insignia.

### Tres plantas, múltiples variantes

Tras décadas —quizás siglos— dando la espalda al río, otra de las características de la nueva Errenteria es que se le dota de un papel central al eje fluvial. Lekuona Fabrika cola-

borará en que sea así, ya que su entrada principal queda entre dos puentes que cruzan el río Oiartzun.

Nada más entrar por la puerta principal, tras cruzar un amplio hall, se puede encontrar un pequeño pasillo, con taquillas a la derecha.

Esta planta está destinada al ocio o entretenimiento. Hay material de todo tipo: música, películas, juegos de mesa, play station-s, ordenadores, guías de viaje, prensa...

También alberga un puesto de recepción, el más visible quizás, al estar en la entrada del edificio. A pesar de ello, se pueden realizar consultas en cualquier otro espa-



## *Lekuonako liburutegiaren funtsak hiru solairutan daude banatuta. Zero solairuan aisiarekin lotuta daudenak joango dira; 1ean, sorkuntza ardatz dutenak; eta 2an, ezagutzarekin.*

4

cio de Lekuona sin limitarse a la de la planta baja. En esa recepción se venderán las entradas de los eventos y se podrá, entre otras cosas, solicitar la *kultura txartela*.

Quien visite la nueva fábrica se fijará en que los muebles y las mesas tienen *ruedines*, para poder moverlos. Y es que una de las ideas principales de Lekuona Fabrika es que las personas usuarias puedan crear en todo momento su propio espacio, acorde a sus necesidades.

Para acceder a ellos se puede subir por las escaleras que dan a la plaza Gernikako Arbola. Una vez subidas, se puede contemplar, panorámicamente, el perfil que dibujan los edificios de la Alameda. Detrás, la parroquia. Al fondo, fundiéndose con el cielo, Arramendi.

Dejando atrás las escaleras enmoquetadas, se entra a otro espacio que recuerda a una biblioteca. Se puede componer el espacio a capricho. Los fondos que se pueden encontrar se engloban en la sección de creación. Ahí se pueden encontrar desde novelas, literatura infantil y juvenil hasta material relacionado con el *bertsolarismo*, pasando por las novelas gráficas o libro sobre artes escénicas.

Los espacios no se dividen por edades sino todo lo contrario: buscan fomentar el diálogo intergeneracional.

En el segundo piso, por su parte, el material que se puede encontrar está relacionado con el conocimiento, el saber: ciencias sociales, idiomas, ensayo, arte, estudios de género o historia.

Lekuona Fabrika no está ni en Trípoli ni en Moscú, pero se pueden encontrar, entre otras, las plazas verde y roja. Corriendo cortinas, se pueden crear las 'plazak', espacios interiores que acogerán diversa programación y actividades. Por poner un par de ejemplos, la plaza verde se puede destinar a una sesión de cuentacuentos, mientras en la roja se reúne un grupo de lectura.

En esa última planta se puede encontrar el único espacio que recuerda a una biblioteca clásica: *Isilgunea*. Dispone de mesas y está equipado con tomas de corriente y red. Y como dice el nombre, lo único que se debe oír es el sonido de las hojas al pasarlas. Al lado, en una especie de burbuja, se encuentra 'Lantegia', el lugar destinado a trabajar en grupo.

A pesar de ser la última planta, el edificio alberga una sorpresa unos metros más arriba. Es la terraza del edificio, donde se podrán organizar conciertos, charlas u otro tipo de actos más íntimos o de pequeño formato.

Después de llegar a la cima, toca bajar de nuevo. Esta vez, a *Sorlekua* que se encuentra al nivel del suelo y al que accederemos a través del hall. Es un espacio pensado tanto para que compañías relacionadas con las artes escénicas trabajen en la preparación de sus creaciones como para la exhibición de espectáculos. Posee un escenario adaptable a las necesidades del momento. Este entorno tiene siete posibles disposiciones; así como la posibilidad de ser dividida en

tres salas diferentes. Respecto a la capacidad, cuando los aforos vuelvan a la normalidad, podrá acoger 737 espectadores y espectadoras sentadas o 1.500 de pie.

Además de alimentar espíritu y mente, también —como antaño— se podrán saciar la sed y el hambre, ya que al lado de la plaza Gernika se abrirá una cantina, con productos Kilómetro 0.

Lekuona Fabrika ha supuesto una inversión de 10,7 millones. La aportación de la Diputación a la inversión ha sido del 2,4 millones, es decir, un 22,4% del total, que se aportó en la fase del proyecto previo al que finalmente se ha ejecutado. Por su parte, la inversión final del Ayuntamiento ha sido, por lo tanto, de 5,8 millones en el edificio, de 2,1 millones en equipación y, por último, 400.000 euros en la redacción, asesoramiento y dirección del proyecto.

### **La vida, el contenido**

Además de hablar del continente, hay que hablar del contenido. Es lo que alimentará Lekuona Fabrika, y, por ende, toda Errenteria. Lo que ocurrirá dentro de Lekuona es lo que la hará especial, y pivotará sobre tres ejes: *Herritar Plaza*, el servicio de biblioteca y la creación de artes escénicas.

*Herritar Plaza* será la herramienta para la participación ciudadana. Entre otras cosas se creará una comisión que decidirá parte de la programación de Lekuona Fabrika. Pero no solo eso, será el camino para formar grupos de personas con intereses similares.

Por su parte, el servicio de biblioteca ofrecerá las prestaciones de una biblioteca convencional, además de revolucionar su propio concepto para convertirlo en un puente entre las personas y la comunidad. Así, sus recursos y fon-

dos se sumarán y adaptarán a la programación y actividades.


Por último, tal y como se ha adelantado, Lekuona Fabrika también posibilitará y ayudará los procesos para la creación de artes escénicas que gracias a las actividades de mediación se compartirán con la ciudadanía.

La biblioteca, las residencias para artistas y creadores y creadoras darán vida al edificio de la margen derecha del río, así como la programación cultural que cobijarán *Sorlekua* y el resto de los espacios. Por ahí han pasado ya *Iratxe Ansa* e *Igor Bacovich*, *Olatz Salvador*, varios actos del festival de artes escénicas *Eztena*, más de una presentación de libros, sesiones de filosofía infantil...

El granero de la creación en Errenteria es inagotable. Con Lekuona Fabrika se quiere sembrar, procesar y que la cultura se convierta en el pan de cada día.

5

*Sormen-, ikaste-eta kultura- dinamikak ahalbidetzeko tresnak eman nahi ditu Lekuonak. Lanabesak dira liburuak, Ixilgunea, ordenagailuak, Sorlekua edo koloretako plazak.*



# LEKUNENA [FABRIKA]



infórmate del día a día en  
herriko egunerokotasunaren  
berri izateko



# HERRI BIZIA

herribizia.errenteria.eus




## Datozen 15 urteetako herria

El Ayuntamiento ha iniciado el proceso de revisión del Plan General de Ordenamiento Urbano.



**Nuevas opciones**  
Kulturatik hezteko, Herri  
Arte Eskola.



## Enpresa-ehuna zaintzeko

Talka Bulegoa ayudara a los pequeños negocios de la villa.



## Harro gaude haitetaz

El exciclista Luis Otaño, Jesus Mari Zamora exfutbolista, el delantero de la Real Jon Bautista y la bailarina Iratxe Ansa han recibido el reconocimiento de Errenteria, porque, en cada uno de sus ámbitos han llevado orgullosamente su nombre a todas partes.



### Bortxa matxistarik gabeko bizitzak

Todos los grupos municipales han suscrito la estrategia para acabar con la violencia contra las mujeres.



### Elkarbizitzeko

El Ayuntamiento, el Gobierno Vasco y Papresa se han reunido para evaluar y corregir el impacto de la empresa.



20 aparkaleku gehiago  
La zona anexa al ambulatorio de Beraun, próximo parking.



Covid permanente, visible  
Udalak gaixotasuna dutenei harrera egin die, laguntzeko.



## //udal taldeen mezuak//

UN CENTRO CULTURAL DE REFERENCIA NO PUEDE PERMANECER CERRADO LOS FINES DE SEMANA

[PSE-EE] Desde el Grupo Municipal Socialista mostramos nuestra satisfacción por la inauguración de Lekuona y nuestra disposición a trabajar en darle contenido y ambición al proyecto.

Sorprende que no se haya aprovechado la apertura para presentar una programación novedosa y ambiciosa. Lekuona debería de tener una programación más completa y abierta durante los días de fiesta y fines de semana y ofrecer a la ciudadanía la utilización de todos los espacios para la organización de exposiciones, charlas y actividades varias.

Por ello, solicitamos al Ayuntamiento cubrir durante la época de exámenes la demanda para los estudiantes y trabajar en una gestión eficaz que permitiera, desde el primer día, sacar el máximo provecho a esta instalación y con ello ser verdaderamente un espacio cultural innovador y de referencia más allá de lo local o comarcal o de una simple biblioteca al uso.

NORBANAKO ETA KOLEKTIBO GUZTIEN ESKUBIDEEN DEFENTSA GUZTION ARDURA

[EAJ-PNV] Laster ospatuko da LGTBI+ harrotasunaren eguna, 52 urte beteko dira aldarrikapen egun horrek jatorri dituen Stonewalleko istiluetatik. Ekainaren 10ean 42 urte bete dira gure herrian Francis erail zutenetik. Geroztik eskubideen bermeetan eta askatasunean aurrerapausoak eman direla ezin uka.

Zoritxarrez, aldarrikapen egun honen beharra berresten duten gertakariak ere izaten ditugu oraindik, berriki gazte basauriar batek jasandako eraso homofoboak. Erasotzaileen gatzetasuna arduratzeko moduko datua da gainera. Erasotzaileak ez dira euskal gizartearen isla baina gizartearen parte dira eta gizarteak bere osotasunean egin behar die aurre.

Guztion ardura da kolektibo edo norbanako guztien eskubideak defendatzea, kolektibo horien parte izan edo ez, guztiok osatzen dugulako gizartea. Borroka gurea ez dela pentsatuta, Martin Niemöller-ek 1946 egindako hausnarketa egia bihurtzeko arriskua baitago: "nire bila etorri zirenean, ez zen inor geratzen protesta egiteko".

BERE ANIMALIAK ZAITZEN DITUEN HERRIA

[Elkarrekin] En estas fechas está finalizando el proceso para la puesta en marcha de la nueva ordenanza de protección y posesión de animales de Erreterria.

Arau berri honek, animalien jabetzaz aparte, zeregin jakin batzuk finkatzen ditu, bai Udalarentzat baita animalien edukitzaile eta titularrentzat.

Se busca garantizar una convivencia social adecuada, incidir en una posesión responsable, tanto en el trato con el animal, como en la consideración y en el respeto hacia la convivencia en el municipio.

Además de lo relativo a la posesión, se establecen normas sobre su atención sanitaria, comercialización y venta, su no utilización para espectáculos públicos, actividades en la vía pública, parques caninos, recogida, identificación, sacrificio o esterilización.

Guzti hori, pertsonen eta animalien arteko bizikidetzaren hobea sustatzeko, azken batean, Erreterria berdeagoa eraikitzen jarraitzea, arreta berezia jarriz animaliekiko sentzimendua eta errespetua areagotzeko.

LEKUONA FABRIKA, SORMENAREN AURRERABIDEA

[EH Bildu] Bere garaian Plan Estrategikoan ezarritako mugari bat betetzen du Lekuona Fabrikak. Plan hartan jasotzen zen kultura eta, oro har, sorkuntza kulturala tresna garrantzitsuak izan zitezkeela hiria ekonomikoki garatzeko eta eraldatzeko.

Lekuona Fabrikak espazio zabalak eta baliabide material zein pertsonalak eskaintzen ditu, sormenari bide emateko, eta sormenaz hitz egiten dugunean, ez gara soilik profesionali buruz ari. Hauek kontuan izanik ere, sormenarekin eta kultura-sorkuntzarekin erlazioan nahi duten herritarrei buruz ari gara.

Eta, beraz, Lekuona Fabrikak interes komunengurua biltzen diren pertsonen beren proiektuak modu partekatatu, parte-hartzaile, belaunaldi arteko eta komunitarioan garatzeko espazioak eta baliabideak eskaintzen dituela esaten ari gara.

Orain, herritarrek ekipamendua eta proiektu bera bere egitera gonbidatzea besterik ez zaigu geratzen.



# Bizitzen hasi da

*Ez dira bi hilabete Lekuona Fabrika zabaldu zenetik. Errenteriarrek oraindik ere eraikinaren aukerak ezagutzen ari dira. Horregatik, alde on asko eta hobetzekoren bat dituela adierazi dute.*

**A**rratsalde eguzki-tsua, hego haizekoa. Oso argia. Lekuona Fabrikaren atarian gazte multzo bat dago. «Antzerki tailerrekoak zarete? Tira bada, sartu. Zuen zain daude», esan die kuadrilla horretako kideei emakume batek. Sartu dira, eta eraikinetik ateratzen ziren lau neraberekin begiradak gurutzatu dituzte; motxila pisutsuekin doaz gaztetxoak eraikinetik at. Bat-batean, baloi bat Gernika plazako eskaileretatik behera,

ia-ia Oiartzun ibaira erori da. Fabrikaren ondoan urezko puxikekin jolasean dabilzan haurretako batek ostikoa eman eta berriz ere plazaranzko bidea eman dio esferikoari, goitik behera bustita dago umea. Bitartean, Oiartzun ibaian, trainerilla baten arraunen hotsak ibai ertzeko petrilean eserita daudenen atentzioa bereganatu du. «Ondo doaz hauek», esan du gizon batek. Adinekoa da. Harrengandik ez oso urrun bi gazte daude solasean, eserita, zigarroa egiten. Pertsonen joan-etorria na-

barmena da Lekuona Fabrikaren atarian. Ireki eta gutxira badu bizitza. Jendeak eman dio.

Zigarroa egiten ari denetako bat Olaintz Calvillo da. Ikaslea da, Lekuonaren goiko solairuan ari da ikasten, eta atsedenerako tartea hartu du. «Oso eraikin polita iruditu zait. Baliabide asko ditu eta oso ondo pentsatua dago. Kritika bat dut, ordea: aurreko astean goiko solairuko ikasketa aretoa bete-betea izan zen. Ondoko espazio batean toki gehiago jarri zituzten, baina beste buelta bat eman behar zaio horri». Ekaina hasieran jasota dago iritzi hori, ikasleek espazio lasaiak gehien behar dituzten aroan zehazki.

Auditorioaz gozatzeko nahia duela adierazi du Calvillok, eta ideia ona iruditu zaio aldi berean sarrerako takilena, «ikasten ari garentzako oso ondo dago». Donostiako Buenavistan bizi da Calvillo, eta aitortu du askoz ere erosoago zaiola Errenteriarra etortzea Donostiako baliabideak erabiltzea baino. Bizikleta erabiltzen du herrirako bidea egiteko: «Gainera, hemen ondoan dago bizikletak uzteko tokia, Zumardia ere hurbil dago, tabernak, garraiorako baliabideak ere daude... Oso ondo dago». Iritzia ematerakoan, bi aste ziren Lekuonako bazkide egin zela donostiarra, eta oraindik bazkide txartela ez zuela jaso kexu zen. Ziur lerrook irakurtzerakoan ondo gordea duela txartela zorroan.


Barrualdera sartu eta giroa pixka bat lasaitu da. Alegia, eraikinaren kanpoaldean zegoen berrik ez da, eta pertsonen joan-etorrien frenetikotasunaren intentsitatea jaitsi da. Sarreratik eskuinaldera, hiru nerabe kalakan, lasai, taberna izango denaren ondoko harmailetan eserita. Euren gauzez ari dira hizketan. «Oso handia iruditzen zaigu Lekuona. Bigarren pisuko liburutegia erabili dugu, eta liburutegi zaharra baino askoz hobeto dago». Ez dute zalantzarik izan iritzia ematerakoan. Gustatu zaie eserleku handiak daudela liburutegian, eta gainera mahaiak mugitzen direla, nahi bezala jar ditzaketela gupilak dituztelako. «Hirugarren solairuan ere egon gara. Saltseatzen. Oso handia da, polita. Gustura gaude». Iritzion jabe Aixa Vilas eta Sara Housni dira. Euren artean hizketan jarraitu dute.

## Espazio komunak

Bigarren solairuko liburutegiko harreran dago Joxepi Inda. Lehen aldia da Lekuona Fabrikara dagoela, «oraindik ez dut astirik izan ikusteko». Liburu baten bila joan da, liburutegiko laguntzailea ari zaio arreta egiten. Baina eraikinean pasatu dituen minutu eskasek balio izan diote lehen iritzia egiteko: «Polita iruditu zait, argi asko ikusten da. Banaketaren zehaztasunik ez dut oraindik, berria da dena niretzat. Baina oso ona da lehen inpresioa. Hor, adibidez, umeak ikusten ditut etxeko lanak egiten. Oso interesgarria da hori». Marcos Tantos Arriaga liburuzain laguntzaileak irmo azaldu du eraikin berriak onurak besterik ez dituela ekarriko, bai langileentzat eurentzat zein herritarrentzat, «asko irabazi dugu». Tantos Arriagak aitortu du ez zaiela asko kosta bertan lanean hastea. Izan ere, lekualdaketan era aktiboan parte hartu dutelako langileek, eta jada aski ongi ezagutzen zituztelako Lekuona Fabrikako txoko gehienak, «orain falta dena da herritarrek bere egitea guztiz eraikina, eta ohitzea». Liburuzain den aldetik kexa handirik ez duela jaso adierazi du: «Jendea kontent ikusten dut, adin tarte ezberdinetakoak datoz eta nahasten dira. Polita da hori».

Beste txoko batean, hurrekin dago Josu Illaramendi. Umeak gustura aski dabilza ukitzeko pantaila duen jolasarekin. «Lehenengo liburutegia oso txikia zen, zaharra. Kartzela antzekoa. Ia ez zegoen lekurik. Orain leku zabala dago, ondo dago», esan du. Eraikina-

ren kanpoalderi «zerbait» falta zaiola uste du ordea, bukatu gabe dagoenaren itxura duela: «Ideia ona iruditzen zait, baina pixka bat nahasia ikusten dut fatxada. Hori izan daiteke lehen faseetan ideia bat zegoela, eta aldatu behar izan zela Lekuonaren egitasmoa.



**Olaintz Calvillo**

*«Tiene muchos recursos y está todo muy pensado»*



**Joxepi Inda**

*«Mi primera impresión ha sido muy buena»*



**Marcos Tantos Arriaga**

*«Ahora sólo falta que los y las errenteriarros hagan suyo el edificio»*



**Aixa Vilas y Sara Housni**  
«Hemos ido a salsear a la tercera planta. Está muy bien»



**Josu Illarramendi**  
«En principio, veo mucha mezcla de libros»

Igual bidean zerbait gelditu da». Aldi berean, arraroa iruditu zaio liburuak —haurrenak eta heldue-  
nak— nahasiak daudela ikustea, «beharbada erabileraren poderioz ikas daiteke non dagoen gauza bakoitza, baina hasiera batean nahasi samar ikusten dut dena. Errotuluak falta dira». Hirugarren eguna du segidan Illarramendik Lekuonan, «haurrei pila bat gustatu zaie», eta liburutegi zaharreko bezero zen aldetik, berrian erosoago sentitzen da, baina liburuen

kokapenez duen zalantzari indar berezia eman nahi izan dio.

Isilgunearen ondoko aretoan — ikasteko eremua da, isilik egon behar den gunea bakarra, bigarren solairuan—, gortina gorria itxita dago. Bertan haurren ahotsak entzun daitezke. Marrazkiak egiten ari dira; «bukatu duzue?», galdetu die haiekin dagoen begiraleak. *Bai* ozen bat entzun da, hitzetako azken bokalak luzatzeko haurrek duten trebeziarekin.

Handik beheranzko bidean, mo-  
ketadun eskaileretako kristalezko hormatik Jasokundeko Amaren parrokiako dorrea eta erdialdea ikus daitezke. Justu alboan, haurrak futbolera jolasten Gernika plazan. Baloia berriz ere ibai aldera erori zaie. Gazte batek hartu du, ostikoa eman dio, eta berriz ere plazara itzuli du. Bizirik dago lehen Oñartzun ibaiaren haragoko aldea zena. Herriaren beste erdigune bat bihurtu da, eta bertan antzerki tailerreko gazteak.

## Argazki zaharra

1930eko ekainaren 1ean egin zen Erreterrian Eusko Olerki Egunaren lehen edizioa. 1935era arte iraun zuten poesiari lotutako jaiak. Lekuona Fabrikako plazen antzera, Herriko Plaza ere olerkizalez bete egin zen ikusmin handia eragin zuten ekitaldian. Izan ere, herriko poeta Luis Ramon Jauregi Etxenagusia *Jautarko* (Erreterria, 1896-1971) omentzea izan zuten asmo jarduerak; eta, besteak beste, Joxe Mari Agirre Lizardi eta Nicolas Ormaetxea Pellejero *Orix*e izan ziren herrian, euren olerkiak errezitatzeko. Halaber, Jautarkolek plaza du herrian, Torrekuaren ondoan. ARGAZKIA: GURE GIPUZKOA, PASCUAL MARINEN FUNTSA.



## Ba al zenekien...

La Biblioteca Pública Municipal tiene **13.233** socios y socias

Lekuona Fabrika, entre otras cuestiones, ha aglutinado el servicio de biblioteca municipal. Según los datos con los que cuenta a 14 de junio, tiene **13.233** socios y socias (el **33%** de la población total de la villa). Desde que Lekuona Fabrika abrió sus puertas, el número de socios y socias ha crecido en 61 personas. Además, la media diaria de usuarios y usuarias que entran en las instalaciones es de **810** personas. Por otra parte, la Biblioteca Pública Municipal de Erreterria cuenta en su haber con un total de **70.669** referencias.



## Txoko bat

Kaputxinoetan dago Jose Manuel Zamarreño plaza, herriaren erpin batean. Dezentekoak dira dituen berezitasunak, paseorako eta atsedenerako berdegunea baita. Haurrentzako jolas eremua ere badu. Deigarriena, beharbada, Pasaiako badiara duen ikuspegia izan daiteke, miradoretik ondoko herriko bihotza denaz goza daitekeelako, lasaitasun giroan.



# KALEZ KALE

UDAKO KULTUR  
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN  
CULTURAL DE  
VERANO

## EKAINA - JUNIO

**26 MIKRA**   
BERDINKI ZIRKUS  
KAPUTXINOAK: CRISTOBAL  
GAMON IKASTETXEA (HH/LH) 

## UZTAILA - JULIO

**02 VERANO DEL 85**   
OZZINEMA ELKARTEA  
PONTIKA: FRONTOIA /  
FRONTÓN 

**09 JUMANJI.**   
**SIGUIENTE NIVEL**  
OZZINEMA ELKARTEA  
FANDERIA: FUTBOL 7 ZELAIA /  
CAMPO FÚTBOL 7 

**10 SARDINA  
FRESKUE**   
ORGANIK DANTZA  
PONTIKA: FRONTOIA /  
FRONTÓN 

**16 AVES DE PRESA**   
OZZINEMA ELKARTEA  
PONTIKA: FRONTOIA /  
FRONTÓN 

**30 YESTERDAY**   
OZZINEMA ELKARTEA  
BERAUN: PABLO SOROZABAL PLAZA 

**31 BUTTERFLY EFFECT**   
ASTROLABIUM TEATROA  
GAZTAÑO: FRONTOIA /  
FRONTÓN 

## ABUZTUA - AGOSTO

**06 CHIHIREN BIDAIA**   
OZZINEMA ELKARTEA  
KAPUTXINOAK: CRISTOBAL  
GAMON IKASTETXEA (HH/LH) 

**13 ANE**   
OZZINEMA ELKARTEA  
GALTZARABORDA: MIGUEL IRASTORZA FUTBITO ZELAIA /  
CAMPO DE FUTBITO MIGUEL IRASTORZA 

**14 POR HACER UN FAVOR...**   
TRAPU ZAHARRA  
GALTZARABORDA: MIGUEL IRASTORZA FUTBITO ZELAIA /  
CAMPO DE FUTBITO MIGUEL IRASTORZA 

**20 LA CAZA**   
OZZINEMA ELKARTEA  
KAPUTXINOAK: CRISTOBAL GAMON IKASTETXEA (HH/LH) 

**27 AKELARRE**   
OZZINEMA ELKARTEA  
PONTIKA: FRONTOIA / FRONTÓN 

**28 HEMEN GAUDE,  
DENA ONGI**   
ROUGE ELEA  
FANDERIA: FUTBOL 7 ZELAIA /  
CAMPO FÚTBOL 7 

XEHETASUN GUZTIAK / TODOS LOS DETALLES:  
[KULTURA.ERRETERIA.EUS](http://KULTURA.ERRETERIA.EUS)

GONBIDAPENAK / INVITACIONES:  
LEKUONA FABRIKA  
[SARRERAK.ERRETERIA.EUS](http://SARRERAK.ERRETERIA.EUS)

**K**ULTURA  
kreatiboa

  
ERRETERIA  
UDALA

LAGUNTZAILEA - COLABORA

  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO